

## SARRERA

### Hiztegi osorakoa

*Erlijio-hiztegi euskarazkoa garai honetan? Mundu sekulartuan --erlijio-ondokoa? kristau-ostekoa?-- sartuta gabiltzan honetan? Zer da: iragandako zibilizazioaren Hiztegi historikoa? ala gizarte-sektore basterrekoaren baten Hiztegi marginala? ala berrezarri nahi litzatekeen gizarte erlijiodun eta erlijiozkoren baten Hiztegi ideala?*

*Baten bati burura dakiok, ametsezko munduren bati itxura eman nahia besterik ez dela guzti hori; edota iraganeko historia ospetsua ukan duen baina itzaltzeaz eta suntsitzeaz dagoen mundu eta gizarte erlijiozkoari oroigarria ipintzea besterik ez dela Hiztegi honen eginkizuna. Areago: gaurko mundu errazional, tekniko eta zientifikoan lekuri eta funtziorik ez lukeen zerbaitentzat (mitozko, erritozko, sinbolozko, fedezkoarentzat) lekua eskatzea eta funtzioa berreskuratu nahi hutsa besterik ez dela.*

*Erljioari buruz --edota erlijioaren funtsean bide dagoen Misterioari buruz-- bakoitzak har dezake arloagabetasunezko edo indiferentziasko jarrera, inoren arazoa bailitzan; ala fedezko eta atxekimenduzko jarrera, bere bizitzako arazo nagusitzat hartuz; areago, bakoitzak izan dezake erlijiozkoaren aurrean militantearen joera, horren aurka borrokatzekoa, gizatasunezko proiektu historikoaren aurkakoa bailitzan, ala norberaren erlijioaren zabalikundearen satiatzekoa, apostolutsaren edota proselitismoaren bidetik.*

*Jarrera eta joera guzti horietaz harantza dago, ordea, erlijioaren ikuspegi eta ulerpen sozio-kulturala. Horren arabera, erlijioa fededunen eta erlijiodunen elkartea da (Eliza, Sangha, Umma, etab.): horren erakundea, horren pentsaera, horren lekua eta eragina gizartean. Horrekin batera, erlijioa kulturaren osotasunaren barruko sistema espezifikoa da, bestelako sistemen (juridikoaren, filosofikoaren, sozialaren, ekonomikoaren, teknologikoaren, etab.en) artean.*

Erljioaren ulerpen eta ikuspegi sozio-kultural horren bidetik sortu eta eratu dira erljio-zientzia modernoak, haren ikuspegi teologiko edo filosofiko soilak gainditsen dituztenak, eta gaur egun unibertsitatetan beren lekua dutenak, bestelako giza zientzien artean.

Badirudi erljioaren alorrak bere status teoriko-zientifikoa lortua duela, horren ikuspegi eta baldintza ideologiko eta teologiko gutxienekoen gainetik, gaurko mundu sekulartu honetantxe, hain zuzen ere. Hortik begirata, erljioa gertakari oso zabala eta oso sakona --eta seguruenik oso bizia-- da gaurko mundu sekulartuan ere. Horren lekuko da noski argitaratu berria den *L'état des religions dans le monde* liburua, Michel Clévenot-en zuzendaritzapean, *La Découverte/Le Cerf* argitaldarien kaleratua (1987), "L'état du monde" bilduma zabalaren barruan. 640 orrialde ditu eta datuz, zifraz, mapez eta taulez beterik dago: zerbait ukigarria, kontagarria eta ikuskorra da, beraz, erljio-alorrarena.

Bada erljiozkoaren indarberritzea sumatu uste duenik ere gaur egun, beste lurraldetan eta gurean: mitozkoaren, sinbolozkoaren, fedezkoaren, erritozkoaren balioberritzea, gure gizarte errazionaldu eta teknifikatuaren barruan gertatzen ari bide dena, ez dirudi gutxiestekoa eta bastertzekoa denik, ideologiak eta teologiak aparte. Dena dela, erljiozkoaren indarberritzeari buruzko susmo, hipotesi eta teorien gain, hor daude erljio-sistema tradizionalak, beren teologia, liturgia, errito, hierarkia, apaiz, tenplu, eliza eta bestelako hamaika erakunderekin: beren leku eta eragin "garrantzizkoa" dutenak gure gaurko gizartean oraindik.

Horregatik "L'état du monde" saileko liburu aipatuaren sarreran Michel Clévenot-ek dioen hau geurea egin dezakegu, euskarazko lehen "Erljio-hiztegi" honen zurigarri: "Nous nous adressons donc ici à tous ceux qui considèrent qu'il est impossible de comprendre le monde d'aujourd'hui sans prendre en compte ce que l'on appelle, d'un terme à mieux définir, 'les religions'" (5. or.).

Hori da seguruenik Hiztegi honetan esku hartu dutenen eritzia. Horren barruan erljioaren ulerpen eta ikuspegi sozio-kulturala da funtsean Hiztegi honena, nahiz eta artikulu gutxi batzutan ikuspegi teologikoa nagusitu.

### **Hiztegiaren alorra**


Gauzarik nabarmenena, erljioen anistasuna eta ugaritasuna da. Erljioa kontzeptua bera baino lehenago daude erljioak, kultura baino lehenago

kulturak dauden bezala. Horregatik, zalantzatzen ibili ondoren, Histegi hau ez dugu izendatu ez "Erljioarena", ez "Erljioena"; "Erljio-histegia" izendatu dugu, erljio guztien konparazioan agertzen diren elementu berdinak osotzen dutelako Histegiaren alorrik nagusia; baina aldi berean "Erljioaren" histegia (gure honetan, kristautasunarena) eta "Erljioen" histegia delako.

1. **Erljioaren** Histegia da hemengo hau. Erljioa du bere alorra. Baina zein erljio? Bakoitzeko fededunek beren erljioa bait daukate sarritan "erljioatzat": kristauak kristautasuna, musulmanek islamismoa, etab.

Erljio ezberdinen aspian (horien agerkariak, adierazpideak eta egiturak aztertuz eta konparatuz) erljio-zientziak iritsiak dira erljioaren gertakari "unibertsalaren" barruko funtzionamendu eta egitura funtsezkoak aztertzeraz eta horretarako kontzeptuak lantzeraz. Erljio-zientzia eta jakitateena da, beraz, hasteko, histegi hau.

J. Martín Velasco-k (*Introducción a la Fenomenología de la Religión*, Ed. Cristiandad, Madrid 1978, 77. or.) honelako eskematara ekartzen ditu erljio-zientzia eta jakitateak:



Erljio-zientzia eta jakitate horien artean, soziologia, psikologia, fenomenologia eta filosofia dira bereziki erljioa beronen orokortasunean hartzen dutenak. Erljioen historia (eta etnografia) erljio bakoitzarena

da noski, nahiz eta horietako bakoitza berorren soiltasun eta bakartasunean aztertzerik ez egon gehienetan. Teologia, berriz, erlijio bakoitzaren fedearen gogoeta berezia izan ohi da. Aurrenekoetako kontzeptu eta teoria askok beren azalpena daukate Hiztegi honetako artikulua banatan, oso bereziak edo berezituak ez baldin badira. Erlijio-kritikako eta pedagogiako hainbat kontzeptu ere artikulaska banatan azaldu ditugu; orobat euskal mitologiako kontzeptu edo irudi hainbaten azalpenak aurkitu ahal izango ditu Hiztegiaren erabiltzaileak.

2. **Erlijioen** Hiztegia da hemengo hau. Gaurko erlijio nagusienak bereziki eta horien barruko alderdi esberdinak hartu ditu kontutan: Sineste eta doktrinak, praktikak eta erritoak, ministeritsak eta hierarkia, erlijiosko elkarte eta erakundeak. Kapitulu zabal horietako kontzeptu eta izen nagusi-nagusienak bakarrik bildu ditugu Hiztegi honetara.

Erlijio nagusi horien azalpen orokorra eman dugu artikulua banatan. Baina horiez gain, erabiltzaileak bakoitzeko kontzeptu nagusien azalpenak aurkitu ahal izango ditu, artikulua txikiago banatan.

Kontzeptuala da batez ere Hiztegi hau. Horregatik erlijio bakoitzeko gertakari historikoei buruzko artikulurik ez dugu sartu ia batere. Era berean, erlijio bakoitzeko teonimoek (jainkoen edo heroien izenek), toponimoek (santutegiek, etab.) eta antroponimoek (erlijioen fundatzaileen, santuen, erreformatzaileen, etab. en izenek) ere ez dute beren artikulua espezifikorik. Horien izenak agertuko dira, ordea, beraiek eraturiko doktrinak edo erakundeak azaltzen dituzten artikuluetan. Erlijiosko organismo edo asoziazioen izen propioek oso gutxitan dute beren artikulua berezirik.

3. **Kristautasunaren** Hiztegia da honako hau (eta bereziki katolizismoarena). Munduko gaurko erlijioen artean, kristautasunak leku apartekoa dauka hiztegi honetan, berau delako Euskal Herriko tradizioan eta gaurko gure gizartean nagusien-nagusiena beste guztien artean.

Liburu Santuetako, kredoko eta teologiako, Eliz erakundeko, liturgiako eta elizkizumetako, kristau-bizierako, aszetika eta mistikako eta pastoralzako kontzeptu nagusiak aurkitu ahal dira Hiztegi honetan. Historian zehar izan diren edota oraindik bizirik dirauten Elizen, Eliz elkarteen, sekta nagusien, heresia eta kristau-doktrina eta eskola nagusien izenak ere agertzen dira artikulua banatan. Alderantziz, kristautasunaren barruko elkarte edo asoziazioen izen propioak ia erabat kanpo gelditu dira. Zuzenbide Kanonikoaren eta kristau-moraleko kontzeptu ezagunen eta nagusienak ere sartu ditugu, ugari ez bada ere.

*Kristau-teologiak --Konfesio guztietakoak-- leku nabarmena eduki arren Histegi honetan, hau ez da zuzenean teologi histegia, orokorki hartuta artikuluetako azalpena ez delako zuzenean fede-aitormenetik eta teologiatik egina. (Horrelako gutxi batzuk ere badaude).*

*Kristautasunaren Histegia da hau, ez bakarrik horren gaiak lekurik handiena hartzen dutelako; eta bai bestelako artikulua berezietan ere kristautasunarekiko lotura esplizitoak egiten direlako.*

*Alderantziz ere, eta erlijioen konparazio-metodoari atzekiz, kristautasuneko artikuluetan, beste erlijioetako kontzeptuekiko dei eta aipu ugari aurkituko du erabiltzaileak.*

### **Histegiaren egitura**

*Bi atal ditu Histegi honek, tomo banatan emanak: Aurrena "entziklopedikoa", kontzeptuen eta gaien definizioa eta azalpena ematen dituen; bigarrena "terminologikoa", erlijio-zientzietako eta erlijioen lexiko berezia jasotzen duena, hiru hizkuntzatan (euskaraz, espainieraz eta frantsesez). Bigarren atalak bere sarrera berezia du: han aurkituko ditu erabiltzaileak beharrezko argibideak.*

*Atal "entziklopedikoa" lau mailatako artikulua ditu:*

- a) 12 nagusi, erlijioaren eta kristautasunaren gai edo kapitulu nagusi-nagusienak azaltzen dituztenak. Horien aurkibidea liburu honen hamaikagarren orrialdean aurkituko du irakurleak. Izenpetuta doaz horiek.*
- b) 125 artikulua erdimailako, erlijio-alorreko eta kristautasuneko kontzeptu funtsezkoenak azaltzen dituztenak. Hauetakoak dira erlijio nagusi bakoitzaren azalpen orokorrak ere. Maila honetakoak ere izenpetuta doaz.*
- c) 2.000 bat artikulua trikiago eta trikitxo, erlijio-alorreko kontzeptuen definizioa edota berri laburra ematen dutenak. Autorearen izenik gabe doaz horiek.*
- d) 1.000-tik gora artikuluburu soil, beren azalpena beste sarreraren batean dutenak. "Ik." laburdurak bidaltzen du erabiltzailea sarrerari dagokion artikulura.*

Hiztegi honetako artikuluetako asko orain dela zenbait urte idatzita-koak dira, irakurlea ohartuko denez.

Kontzeptu, gai eta artikulua gustien arteko loturak bereziki landu ditugu, batetik besterako hainbat dei eginez; bi eratara adierazi ditugu dei horiek: testu barruan sarrera edo artikuluburu den hitzari aurretik \* (izarra) jarriz; paragrafoaren edota artikuluaaren askenean "ik." laburduraz beste artikuluetara bidaliz.

Gainera, sarreren azpian horien sinonimoak eman ditugu, "Sin." laburduraz adierazita. Hauek gustiek beren sarrera dute Hiztegian, artikuluburu gisa.

Azkenik, erlijio nagusien azalpen orokorreko artikuluetan mapa bana jarri dugu, horietako bakoitzaren banaketa geografikoa erakusten duena. Bestalde, hiztegian zehar zenbait inudi ere aurkituko du erabiltzaileak; erlijiozko sinboloenak dira bereziki.

### **Izen propioen idazkera**

Antroponimoen, toponimoen eta teonimoen hiztegi arauemaile eta zabal samarrik ez dugu euskaraz idazten ari garenek. Horregatik etengabeko zalantzak sortzen zaizkigu. Erlijio-hiztegi honetatik begiratuta, gogora daiteke, gauza nabarmen gisa, kristautasunaren fundatzailearen izena bera lau eratara behintzat idazten dutela autoreek gaurko egunean ere: Jesukristo, Jesu Kristo, Jesus Kristo eta Jesu-Kristo.

Hori euskal kultura idatzian tradizio aski luzea dutenen izenetan gertatzen baldin bada, areagotu egiten da berriagoetan eta egunero sartu beharrean aurkitzen garen berrietan. Erizpide ezberdinak daude, horiek euskararen fonetikara eta alfabetora egokitu ala ez. Arazo hau areagotu egiten da izen propio horietatik eratorritako izen arruntak, mailegatuak ala euskaraz sortuak, idatzi behar ditugunean.

Arazoa biziki larriagotu eta zabalagotu egiten da, jatorriz alfabeto ez-latinoetako hizkuntzetan ematen zaizkigun izen propioak edota horietatik mailegaturiko izen arruntak transkribatzean edo transliteratzean.

Aipaturiko hiru maila horietan honela jokatu dugu hiztegi honetan:

1. **Izen tradizionalak.** Euskal kultura idatzian aspalditik erabili izan dituzten izenetan, forma erabilienak eta finkatuenak hartu ditugu, UZEIn bertan orain arte erabilitakoak bereziki kontutan edukiz.

Euskaltzaindiak erabakitakoetan edo "iradokitakoetan", berriz, horren "aginduari" edo "iradokiari" lotu gatzaiskio; bereziki kontutan harturik **Euskal izendegia. Nomenclátor onomástico vasco. Liste des prénoms basques**, Bilbo 1983, eta **Euskal Herriko udalen izendegia. Nomenclátor de los municipios del País Vasco. Nomenclature des communes du Pays Basque**, Bilbo 1979.

2. **Atzerriko izen sartuberriagoak.** Euskal literaturan tradizio eskasa duten edo inolakorik ez duten atzerriko izenetan, inolako erabakirik ez dagoenean, UZEIn bertan irekitako bideari jarraitzen gatzaiskio. (UZEIk berak erabilitakoak eta bestelako asko bilduta dauzka milaka fitxatan). Dena dela, Euskaltzaindiak argitaratutako "Atzerriko estatuen lurraldeen izenen ortografia" (**Euskera**, XX, 1975) izeneko txostenean emandako formak hartu ditugu.

Bibliako eta kristautasuneko izenei dagokienez, Euskal elizbarrutien Liturgi Batzordeari jarraitzen gatzaiskio orokorki. Hala ere, hebraierazko eta aramaierazko izenetan, grezieraren bitartez sartu eta espainieraz azken "s" batez idazten dituzten izenetan bukaera hori galtzera jo dugu: Jeremia, Mesia, etab. Bestalde, batzutan izen beraren bi forma eman ditugu, Iparraldeko eta Hegoaldeko "tradizioen" arabera: Bernardo/Bernat, Pedro/Piarres, Benito/Benoat, eta abar.

Hemen nabarmendu beharra dago, dena dela, atzerriko izenen idazkerarako erizpide arauemaileen premia larria, jokabide bateratua lortzeko.

3. **Alfabeto ez-latinoetako izen propioen transkripzio-transliterazioak.** Horietarako hiztegi honetan erabili ditugun erizpide-erabakiak, sarrrera honen osteko orrialdeetan aurkituko ditu irakurleak, horrelako izenen zerrenda eta gusti.

### **Norentzat hiztegi hau?**

Erljio-alorrari buruz norberak hiru jarrera eta jokabide eduki ditzake:

- Kulturazko-zientziaskoa: Erljio-zientzietan diharduenarena edota erlijioa fenomeno kulturazkotzat, sozial eta historikotzat, hartzen duenarena.

- *Konfesional-teologikoa: Nork bere erlijioa fedezko esperientziatzaat eta gogoeta-gaitzaat hartzen duena.*
- *Militante-apostolutzazkoa: Nork bere fedearen testigantza emateko eta hori zabaltzeko misio eta mandatutzat hartzen duenean erlijioa.*

Hiztegi hau lehen mailan kokatzen da funtsean. Hala ere, fede-, espe-  
rientzi, testigantza-, misio- edota pastoraltza-mailan bere fedea eta erli-  
jioa bizi dituenarentzat bereziki baliagarria izan daiteke: norberari eta  
besteei bere sinesteen eta bizieraren arrazoibidezko argibideak eman nahi  
dizkienarentzat, baita bere erlijioaren oinarri antropologiko-soziolo-  
giko-historikoak argitu nahi dituenarentzat. Apaizak, katekistak eta misio-  
lariak laguntza ona aurki dezake Hiztegi honetan.

Berezikiago kristau-teologiaren ikasle eta irakasleentzat, batez ere  
euskaraz dihardutenentzat, kontsulta-liburu oinarrizkoa izango da Hiztegi  
hau, goian esandakoez gain, kristautasuneko kontzeptu eta irakatsi teologi-  
koek leku berezia dutelako liburu honetan.

Azkenik --edo aurrenik-- eskoletako erlijio-irakasleentzat, unibertsi-  
tateetan edo bestelako goi-eskoletan erlijioa ikasten edo irakasten dute-  
nentzat dago landuta zuzenean Hiztegi hau. Erlijio-gaietaz egunkari-aldiz-  
karietan euskaraz idazten edota hitzaaldiak ematen dituztenentzat beharrez-  
koa gerta daiteke, bestalde.

### **Aurrera begira**

Hiztegia ez da hizkuntzaren **kutsa itxia**. Hiztegia eta hizkera da hiz-  
kuntza, edonolako alorretan erabiltzen dena; baita erlijio-alorrekoa ere.  
Hizkera eta hiztegia biak eman nahi izan ditugu Hiztegi honetan. Biak bate-  
ra doaz. Hizkera zerbait bizia baldin bada, hiztegiak ere halaxe izan behar  
du, hiztunaren edo idazlearen eskuetan. Etengabe mamitu behar da Hiztegia.

Hiztegia ez da inolako dogma; **gida** da Hiztegia. Erabiltzaileak berak  
aukeratu eta ebaki behar du bidea, eta bide horretan gidaren baliagarritas-  
una frogatu eta, behar denean, zuzendu eta osotu. Eta agian beste bideren  
bat markatu.

**Tresna** da hiztegia, mintzatsailearen eta idazlearen eskuetan eta bera-  
ren sormenaren zerbitzutan. Sormen horretaz baliatu behar du, Hiztegiaren  
tresna bere erara erabiliz bere hizkerazko obra sortzeko eta lantzeko, aldi  
berean tresna bera bere lanerako egokituz.



*Azkenik Hiztegia ez da inoiz osoa izaten, besteren artean, hizkuntza biziak etengabe sortzen, moldatzen eta birmoldatzen dituelako hitzak, erabiltzailearen eraginez.*

*Ohar guzti horiek balio dute Erlijio-hiztegi hau erabiltzean ere. Liburu irekia da, ez irekita daukazulako bakarrik, eta bai zeure kritika, sormena eta adimena erabili behar dituzulako hori erabiltzeko, betetzeko, finkatzeko, zuzentzeko, osotzeko eta berritzeko.*

*Zure zain gelditzen dira Hiztegi honen egileak.*

*Paulo Agirrebaltzategi  
Donostia, 1987ko ekainak 8*